

LEHIAKETAREN HELBURUA:

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin komunikazio eraginkorra sustatzea, ikaslek gipuzkoarrek Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitan dituzten kezka, galdera eta ekimenen inguruan.

OINARRIAK:

Lehiaketan parte hartzeko hurrengo galderari erantzuteko, audio, testu, bideo edo irudi bat bidali beharko dute ikasle taldeek:

Zerk arduratzen gaitu Gipuzkoako etorkizunaz?

Zer galdera ditugu?

Zer proposamen?

Lan guztiek G(i)dan azaldutako komunikazio-arauak jarraitu beharko dituzte. Lanak dagokion kanalaren bidez helaraziko zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari. E-mailez, Instagramez edo Youtuben.

E-mail: partaidetza@gipuzkoa.eus
[instagram.com/OrainGipuzkoa](https://www.instagram.com/OrainGipuzkoa)
twitter.com/OrainGipuzkoa
[facebook.com/OrainGipuzkoa](https://www.facebook.com/OrainGipuzkoa)
[youtube.com/OrainGipuzkoa](https://www.youtube.com/OrainGipuzkoa)

Bideo edota audioak: Email bidez jasoko dira edo Youtubera igoz, eta gehienez minutu bateko iraupena izango dute.

Mezuak: E-mailez jasoko dira.

Irudiak: Instagram bidez. Argazkiek edo irudiek originalak izan beharko dute.

Lehiaketa honetan DBH 4ko ikasleek parte hartu ahal izango dute (15-18 urte bitarteko ikasleek). Lanak taldeka egingo dira, eta talde bakoitzak kanal bakoitzeko lan bakar bat aurkeztu dezake.

Lehiaketara aurkeztutako lanetan taldekideen izenak eta zentroaren izena aipatu behar dira.

LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:

2019ko maiatzak 17

SARIAK:

Goi mailako gailu teknologiko bat taldeko kide bakoitzarentzat. Kanal bakoitzeko saritu talde bat eg

SARI BANAKETAREN EKITALDIA:

Sari banaketa ekaineko lehenengo astean izango da Etorkizuna Eraikiz Gunean. (Gipuzkoa Plazan, z/g. – Donostia)

LEHIAKETAREN KUDEAKETA:

HUHEZI - Mondragon Unibertsitateak eta MARAKAK egingo dute.

AURKEZTUTAKO LANAK ERABILTZeko BAIMENA:

Lehiaketara aurkeztutako lanak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratuko dira, eta lan horien kopiak egiteko eta zabaldu edo banatzeko baimena izango du, baita egoki deritzon komunikazio publikoko sistemaren bidez eta egoki deritzon helburuarekin lanak ezagutarazteko baimena ere.

LEGEZKO OHARRA:

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak, irudiak barne (argazkiak eta bideoak) Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren erantzukizunpean egongo direla. Zure datu pertsonalen erabileraren xede da partaidetzazko prozesu hau kudeatzea, gazteen ideia eta proposamenak ezagutzeko tresna den heinean, lehiaketaren deialdian adierazitakoarekin bat etorriz. Datuen erabilera hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzari emandako ahalmen publikoen egikaritzan egiten da, 5/2018 Foru Arauak, azaroaren 12koak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

Lehiaketan parte hartzeko bidaltzen duzun eduki guztia sare sozialetan argitaratu daiteke, eta beraz, publikoki hedatu ahal izango da. Partaidetzazko prozesuaren esparruan hedatzeko izan ezik, datu pertsonalak ez zaizkie komunikatuko hirugarrenei, eta ezarritako xedea betetzeko behar den denboran gordeko dira. Zure datu pertsonalen erabilerari buruzko gaiari nahiz zure eskubideak gauzatzeari dagokienez (datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatze, mugatzeko eta haien aurka egiteko), idatzi bat aurkez dezakezu Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren aurrean (Gipuzkoa plaza z/g 20004 Donostia), edo bestela, Datuen Babeseko ordezkariarekin harremanetan jarri (dbo@gipuzkoa.eus).